

NERE ERRIA

Nere herria dago tristuraz,
ixildu zaio mingana
egurraren bildurragatik,
eta nigarrez bizi da.
Nere kitarra penetan dago
eta ditu kondenatuko
ametsik gabe bizi den asko,
baserriar eta kaleko.
Ez da mutila, ez da ezkontza
nere arnasa bakarra;
ez dira, ez, nere salbazioa
ez dirua ta ez kotxea.
Utzi zio dut familiarako sukaldea
eta ebetik kanpora
arkituko dut nere heriotza,
nere gurutze gaztea.
Euzkera maite dudalako ni
enaiz alkate izango,
enaiz gobernadore izango
herriarekin nagoelako.
Euzkerak ez nau aberastuko;
ba dakit, bai, hori ondo;
baina euskeraz zaitut salbatuko
nere herri bihotzeko.
Libre nahi nuke nere etxean,
libre bizi gizartean.
Inoren menpeko bizitzekotan
berdin zait bizi kanpoan.
Burrukan nahi nuke nik irau,
herri-berbitzuan irau.
Zapalduak ditugula lagun,
euskal-lurra aska zagu.
Eсна zaitzete, zahar eta gazte,
zuona da etorkizuna;
esna zaitzete, zahar eta gazte,
hil ez dakigun herria.
Ken asarreak eta gorrotoak,
elkartu zaitzete damak;
eta bete ditzagun burkideok
Itzaropenez bihotzak.

IZENIK GABEKOA

Kitarraren doluzko meloditan
nahi nuke jarri herria kantean.

Utzi zuen bere lantegia,
agurtu zuen bere laguna,
galdu zuen legezko karneta,
kalean dabil aterpe bila;
eta arezkeru ez da joan
ez ziner ta ez dantzara.

Kitarraren doluzko meloditan... (bis)

Bizitzan eskeini duenari
ez opa sentimentuzko hitzik;
maltasuna ukatu zaiolari
ez opa banketzeko bodarik;
kateak hausten dabilenari
ez kendu mailu eskuetatik.

Kitarraren doluzko meloditan... (bis)

Eman zenidan bularrak, ama,
az dezala orain herria;
ama, etzaitz nitaz kupitu,
balek ez bait dit hilko anima.
Lurra, eman zuk neri bihotza
jalo nadin zure sabelara.

Kitarraren doluzko meloditan... (bis)

ZUOK GAZTEOK, ZUOK GAZTEOK

Zuok gazteok, zuok gazteok,
tormentupean zaudetenok,
entzun ezazute hor ilunpetik
zuen herritarren kanta-berria,
entzun ezazute presondegitik
gatzediaren esperantzazko doinu.
Eskerrik asko, gazteok,
herri baten alde eskeini zeratalako;
eskerrik asko, gazteok,
zuen ametsak kutsutu gaituelako;
eskerrik asko, lagunok,
zuen tormentuak ikasbide ditugulako.
Gizonaren defentsan
eskatuko dugu pobrearentzat ogia;
egiaren izenean
epaituko ditugu oportunistak paitsoak;
askatasun-bidean
armatuko gera etsai guztien kontra.
— Ez negar egin, gurasoak,
gezurrezko lege batek kondenatu badizkizute semeak;
ez negar egin, neskatxok,
herriko mutilik onenak kartzelan badagoz;
ez negar egin, entzuleak,
gazte haueri emanikako laguntza sufrimentubide izan bazaizute.
Zuok gazteok, zuok gazteok,
tormentupean zaudetenok;
ondo etorri zaigu gorputzetatik
ixur-arazo dizuten zuen odola;
odol bero horren igurtziagatik
erneko da martirien aiza.

ZIGORRA

Ez da egunik, ez da gauerik
zigorra gabekorik.

Basoan ez da txori alairik
kantari dagoenik.
Gure mutila zigortu dute
eta zozoa lutoz ixildu da.
Neskak larrutsik utzi dute
eta aitarenka dago monja.
Drogaren bidez erotu zuten,
sekratuak atea zikieloten,
kriminal gaiztotzat zedukaten,
inpernu zulora eroan zuten.
Gaur da ordua oso sagradua;
paita zaizu inoren defentsa.
Diruak menperaturik daduka
polizi ta obispuen jainkoa.
Ez da egunik, ez da gauerik
zigorra gabekorik.
Basoan ez da txori alairik
kantari dagoenik.